

3. Funtsezko elkartea/sozietatea

Gure proiektua aurrera eramateko, zenbait elkarteren eta erakunderen laguntza behar izango dugu, materiala, pazienteak eta dirua lortzeko:

Alde batetik, Gasteizko udalak gure klinikan parte har dezaketen pazienteren zerrendak bidaliko dizkigu. Paziente hauek zenbait ezaugarri bete behar dituzte, hala nola, gutxienez RGI-a kobratzea.

Bestetik, diputazioak, diru-laguntzak emango dizkigu gure negozioarekin aurrera jarraitu ahal izateko.

Sozioek gure proiektuan kolaboratu ahal izateko bi modu izango dituzte: batetik, propaganda egitea kartelen bitartez, eta bestetik kolaborazio librea.

Hiriko klinikek, gure proiektuan parte hartu dezakete, behar ez duten materiala eta instrumentuak guri uzten. Horrela, klinika osatu ahal izango dugu eta dirua beste tratamendu batzuk egiteko baliabideetan gastatu ahal izango dugu.